

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2026ko Irailak 11 - 1407 zenbakia

IKASTURTE HASIERA

- Koadernoak
- liburukak
- lagun berriak!
- eskolaz kanpokoak
- ~~Urdukitasuna...~~

mñ

2 x 259€

betaurreko progresiboak
batzuk eguzkitakoak izan daitezke



MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2.
EIBAR



hitzordua
eskatu



Euskara
eroso ikasi
eta bizitzeko



Eibarko AEk euskaltegia

2026-2027 EUSKARA IKASTAROAK

MATRIKULA ZABALIK irailaren 30era arte

- Aurkez gureko ikastaroak, erdi-presentzialak eta ONLINE ikastaroak.
- C2 maila prestatzeko ikastaro erdi-presentziala.
- Etan bertan ikasteko ikastaroak (31 euro)

Sostoa 1.1. solaria

943 20 13 79 • 607 534 537

eibar@eek.eus

DIRULAGUNTZA BERRIAK:

A1, A2, B1 mailetan EUSKARA BONOIA 120 euro behin ordaindu eta 4 urtez dago ikasit!

C1 mailako ikastaro osoa:

120 euro (16, 17, 18 urteko gazteentzako)

IV. agroekologia
eta kontsumo
arduratsuaren
azoka

kartel lehiaketa



GAIA

**HAZIAK ERALDATZEN:
BIZITZA EUSTEN
DUTEN EMAKUMEAK
ETA ESKUBIDEAK**

SARIAK

80€ -ko SARIA

Gazteen kategoria: 11 eta 15
urte bitartekoak

150€ -ko SARIA

Helduen kategoria: 16 urtetik
gorakoak

PARTE HARTU!

Bidali zure lana

irailaren 8tik urriaren 5era:

lehiaketaegoaizia@gmail.com



EGOAIZIA
egoaizia.org

Biolur
BIOLOGIA

**ALDA
TZEN**

DEBEMEN
LANDA GARAPENA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamentuak: Gaitasun,
Kooperazioa, Jantzeritza eta Deportea



Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



www.etakitto.eus



Astelehen goizean hasi eta martitzen iluntzean amaitu zen festa Arraten. Eguraldiak lagunduta, demaseko giroarekin ospatu genituen ikasturte berriari hasiera ematen dioten jaiak, eta gure sare sozialetan zein YouTubeko kanalean hainbat bideo jaso ditugu.



eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

ADMINISTRAZIOA

Naiara Esnaola

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOAK

943 20 67 76

AZALA

Iruñe Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Arrateko txosnen aurkako erasoak gaitzetsi ditu EAJ-PNVk

EAJ-PNV Eibarrek irmoki gaitzetsi ditu Arrateko jaietan EAJ-PNVren eta PSE-EEren txosnek jasandako erasoak, eta ohartarazi du intolerantziak ez duela lekurik Eibarren. Jeltzaleen arabera, gertatutakoa ezin da bandalismo-ekin-tza huts gisa aurkeztu edo jai-giroan erlatibizatu: bi alderdi politikoren txosnei eraso egitea aniztasun politikoaren, adierazpen askatasunaren eta bizikidetzaren aurkako eraso da.

“Gauzei beren izenez deitu behar zaie. Alderdi baten espazioari ordezkatzan duenagatik eraso egiten zaionean, intolerantzia politikoaren adierazpen baten aurrean gaude”, adierazi du Alberto De la Hoz EAJ-PNV Eibarko bozeramaileak. Desadostasuna eta kritika zilegi direla nabarmendu du, baina ez intimidazioa edo bandalismoa.

EAJ-PNVren esanetan, inork ez du erabakitze eskubiderik nor egon daitekeen Arraten edo zein alderdi diren ongietorriak. “Eibar guztiona da. Erasoen bidez kontrakoa inposatu nahi duenak aurrez aurre izango gaitu”, esan du De la Hozek.

Jeltzaleek salatu dute, gainera, horrelako gertakariak ez direla isolatuak, eta Arraten zein beste agertoki batzuetan “urtez urte” gertatzen direla. Erasoen arduradunak identifikatzea espero dute, eta elkartasuna adierazi diete bi txosnetan lan egiten duten pertsonari.

EAJ-PNVk gogorarazi du bere txosnaren helburua ere solidarioa dela: aurten bildutako dirua Goi Argi elkarteak egiten duen gizarte-lana laguntzera bideratuko da. Horregatik, salatu du erasoak ez diola soilik alderdiari eragin, baita ekimen sozial bati ere.

Azkenik, hiriko alderdi politiko eta gizarte-eragileei gaitzespen argia eskatu die. “Bizikidetzaren defendatzeak desberdin pentsatzen duena beldurtzeko edo espazio publikotik baztertze edozein saiakera berariaz gaitzestea eskatzen du”, adierazi du. EAJ-PNVk Arraten jarraituko duela esan du, “ideiak askatasunez eta errespetuz” defendatzen.

EAJ-PNV Eibar

Hortik esanak



Ezin da ulertu Ceutan gertatzen ari dena kolonialismoaz eta arrazakeriaz hitz egin gabe. Kolonialismoaz ari gara, ez delako edozein lurralde, historikoki Afrikako kontinentearen hedapen inperialista, kapitalista eta dominazioan rol geoestrategikoa jokatu duen enklabea delako. Eta arrazakeriaz hitz egiten dugu, statu quo horri eusteko beharrezkoak diren gailu material eta erretoriko guztiak martxan jartzen ari direlako, eta horrek ezinbestean dakar arraza-ordena globalaren biktima direnak “inbaditzaile”, “masa-bortxatzaile” eta “arma” gisa aurkeztea ustezko “gerra hibrido” batean. Eta hor, migratzaileak eskubideak eta duintasuna dituen pertsona gisa ikusteari uzten dio, eta mota guztietako indarkeria sozial eta instituzionala egin daitekeen zer bait bihurtzen da.

YOUSSEF M. OULED, kazetaria

Datuak guztiontzako berberak dira, baina interpretazioak diferenteak izan daitezke. Hezkuntza Sailak botila erdi beteta ikusten du eta seguru asko beste eragile batzuek erdi hutsik. Nire ikuspuntutik, hobekuntza, egon den arren, oso txikia izan da eta DBHko 4. mailako gaztelerako kompetentzia kenduta (6 puntu gora egin du), estatistikoki igoerak ez dira esanguratsuak izan. Berdintsu segitzen dugu. Ebaluazio diagnostikoaren txostenari erreparatzen badiogu, badiurdi odolustea moztu dela eta gaitasun maila aurreratuenetan ikasle gehiago daudela, baina ez dugu ahaztu behar nazioarteko parametroetan oraindik ikasle gehiegi ditugula gaitasun maila baxuetan. Bereziketsipena sortu dezake ikusteak lau ikasletik hiruk ez dutela lortzen oraingo Euskal Hezkuntza Legeak eskatzen duen B2 euskara maila DBH bukatzerakoan.

GONZALO LARRUZZEA, Didaktika eta Eskola Antolaketa doktorea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PROBA. → Froga. Gaztelerazko ‘demostración’. “Zer proba hoberik gura dozu halako zaldun jatorra ikustia baiño, aiskiderik ez dabela?”

Norbait zerbaiteko gai dala probatzeko egiten den azterketa. “Bihar horretarako gauza dan edo ez dan ikusteko probaren bat jarri biharko detsagu”.

Lehiaketa, gehienetan idien artekoa. “Datorren domekan proba ei dago Eibarko plazan”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 11
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 12
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 13
EGUNEZ Mendibueta (Urkizu, 6)
ASTELEHENA 14
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
MARTITZENA 15
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUAZTENA 16
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 17
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
BARIXAKUA 18
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (J. Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Fernando Fernandez Pajuelo**. 49 urte. 2026-08-11.
- **Jose Antonio Cid Rey "Toño"**. 70 urte. 2026-09-06.
- **Felicia Rejo Lorenzo**. 93 urte. 2026-09-06.
- **Adela Rodríguez Rodríguez**. 71 urte. 2026-09-08.



Vanesa Hortas, Jon Iraola eta Laura Espin, Toribio Echevarria Sarien edizio berria aurkezten. SILBIA HERNANDEZ

36. Toribio Echevarria Sarietara aurkezteko epea urriaren 7an amaituko da

Toribio Echevarria Sarien 36. edizioa aurkeztu dute aste honetan Eibarko Udalak eta BIC Gipuzkoak. Sariak erreferente dira Euskadiko ekintzailetza berritzailearen ekosisteman, eta, eraldaketa eta inpaktu potentzial handia duten enpresa-proiektuak identifikatzera, babestera eta sustatzera bideratuta daude, *deeptech* proiektu eta enpresetan arreta berezia jarrita.

SILBIA HERNANDEZ

Jon Iraola Eibarko alkateak, Laura Espin BIC Gipuzkoako Proiektuen zuzendariak eta Vanesa Hortas Ekonomia Garapen, Enplegu eta Berrikuntza zinegotziak egin dute deialdi berriaren aurkezpena eta, ekitaldian nabarmendu dutenez, “sariak erreferente dira Euskadiko ekintzailetza berritzailearen ekosisteman, eta, eraldaketa eta inpaktu potentzial handia duten enpresa-proiektuak identifikatzera, babestera eta sustatzera bideratuta daude”.

Teknologia kuantikoak, adimen artifiziala, bioteknologia, material berriak eta energia garbiak bezalako eremu estrategikoetan lan egiten duten startup eta enpresa-proiektuei laguntzea da sari hauen helburu nagusia.

Sariak hiru kategoriatan bereizten dituzte. Lehenengo biak *Startupak* eta *Enpresa-proiektuak* eta *Enpresa Berritzaileak* izenekoak dira eta, horietako bakoitzean irabazten duten proposamenek, 12.000 euro jasoko dituzte. Horrez gain,

proiektuak garatzen, sendotzen eta hazten laguntzeko programak eta baliabideak jasoko dituzte.

Eibarko Enpresa Saria

Bestalde, Eibarko Udalak *Eibarko Enpresa Saria* – *Made in Eibar* izeneko hirugarren kategoriatan indartuko du berriz ere. Azaldu dutenez, enpresa-ekimenei, enpresa sortu berriei eta barne-ekintzailetzako prozesuetatik sortutako negozio-lerro berriei zuzenduta dago, izaera berritzaile eta/edo zientifiko-teknologikodunak, eta egoitza Eibarren dutenak, edo gehienez ere urtebeteko epean herrian kokatzeko konpromisoa hartzen dutenak”. Aurkezten diren ekimenek batez ere industria aurreratuan, sportech-ean eta trantsizio ekologikoan jardun beharko dute.

Kategoria horretan, 12.000 euroko diru-sariaz gain, 10.000 euroko bonu teknologiko bat ere eskaintzen da, “produktuak, prototipoak eta patenteak garatzeko, ahal dela Teknikerrek edo BRTA sareko beste zentro teknologiko batzuekin lankidetzan”.

Argitu dutenez, sari hori beste bi kategorietako sarien osagarria izan daiteke, baldin eta hautagaitzek kokapenari eta lehenetsitako sektoreei buruzko baldintzak betetzen badituzte. Azpimarratu dutenez, diruaz gain, Toribio Echevarria Sariak finantzaketa-, aholkularitza- eta prestakuntza-programetarako sarbidea eskaintzen diete ekimen irabazleei, “garapena, lehiakortasuna eta proiektuen proiektzioa bultzatzeko funtsezko tresnak baitira”.

Hautagaitzak aurkezteko epea urriaren 7an amaituko da. Interea duten pertsona eta erakundeek Toribio Echevarria Sarien webgunean (www.toribioechevarria.com) kontsultatu ahal izango dituzte oinarri osoak, baita parte hartzeko baldintzak ere.



Erabilitako bizikleta eta patineteen azoka egingo da irailaren 19an Untzagan

S.H. Udalak, Ingurumen Sailaren bitartez, Mugikortasunaren Europako Astearekin bat egingo du aurtun ere. *Mugikortasuna guztiontzat* goiburuari jarraituz, bigarren eskuko bizikleten, patineteen eta mugikortasun-objektuen azoka antolatu du irailaren 19rako, zapaturako. Goizez, 10:00etatik 14:00etara egingo da, Untzaga plazan eta, aurreko edizioetan bezala, nahi duten herritarrek erabilitako bizikletak, patineteak... saltzeko aukera izango dute, baita erostekoa ere. Horrekin batera, konponketa tailerra egongo da martxan.

Azoka horretan zerbait salgai ipini ahal izateko, aurretik hitzordua erreserbatu beharko da, Merkabi plataformak Interneten (www.merkabi.eus/eibar) eskaintzen

duen formularioa beteta. Azaldu dutenez, “saldu nahi den bizikleta edo objektu bakoitzeko berariazko inprimakia bete eta plataforma horretatik bidali beharko da. Nahi adina bizikleta jarri ahal izango dira salgai, bakoitzari dagokion inprimakia betez. Patineteak eta mugikortasun jasangarriko objektuak saltzeko (hiru gehienez), berriz, beste inprimaki espezifiko bat bete beharko da”. Egoera onean dauden gauzak baino ez dira onartuko.

Arratsaldean, berriz, 5-12 urte bitarteko haurrentzat bide-heziketarako zirkuitua eta ginkana ipiniko dituzte, 17:00etatik 19:30era Untzagan (euria egingo balu, Errebalen).



Andretxeak udazkeneko programazioa aurkeztu du

S.H. Eibarko Andretxea Berdintasun Zerbitzuak 2026ko udazkeneko programazioa aurkeztu zuen atzo. Andretxeak urritik abendura bitarteko egitaraua prestatu du, emakumeen ahalduntzea eta autonomia, autozaintza eta ongizate emozional eta erlazionala, eta kontzientzia kritiko, feminista eta dekolonialaren eraikuntza ardatz hartuta. Hala, ikastaro eta tailerrez gain, erakusketak, hitzaldiak, dokumental-emanaldiak eta beste-lako jarduerak izango dira Andretxean. Programazioaren barruan, besteak beste, osasuna, emozioen kudeaketa, literatura, indarkeria matxistaren prebentzioa eta kulturartekotasuna landuko dituzte. Udazken honetan, gainera, ikuspegi dekolonial eta antirrazistari garrantzi berezia emango diote. Ikastaro eta tailerretan parte hartzeko aurrematrikula irailaren 23ra arte egin daiteke, online (Andretxearen edo Eibarko Udalaren webgunean), edo aurrez aurre, Andretxean.



eskolara buelta!

elite

EQUIPAMIENTO DE OFICINAS

ISASI kalea, 29

BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK
KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA

Eskola-materiala,
papertegia, motxilak,
idazmahaiak, aukiak...

943-200030 elite@eliteoficinas.es
www.eliteoficinas.es



Eibartik igaro da Adostuz elkarteko irakasle jubilatuen protesta-martxa

S.H. Adostuz irakasle jubilatuen elkarteak antolatutako bizikleta-martxa Eibartik igaro da aste honetan. EAEko Irakaskuntza Publikoko 4.545 irakasle jubilatutako inguru biltzen ditu elkarteak, eta 2012tik kobratu ez duten erretiro aurreratuagatik kalte-ordaina eskatzeko ari dira mobilizatzen. Irailaren 6an abiatu zuten martxa, Gasteizen, eta hilaren 13an amaituko dute Arabako hiriburuan.

“Gure eskubideak aldarrikatzeko” ari direla azaldu dio Angel Mardones irakasle jubilatua...eta kitto! astekariari, eguaztenean

Eibarren egindako adierazpenetan. Haren esanetan, Eusko Jaurlaritzak 2012an eten egin zuen erretiro aurreratuagatik kalte-ordainen ordainketa, baina neurri horrek ez zuen bertan behera laga ordainketa jasotzeko eskubidea. Horregatik, Jaurlaritzak hitzarmenak dioena bete, eta kalte-ordainak ordaindu behar dituela defendatzen dute: “Legea hor dago, eta legea betetzeko dago”, diote. Bi dozena irakasle jubilatutako inguruk hartzen dute parte bizikleta-martxa honetan, egunero, eta, batez beste, 50 bat kilometro egiten dituzte.

Debabarreneko Aisialdiko Begirale ikastarorako izen-ematea ixtear dago

S.H. Debabarreneko Aisialdiko Begirale ikastaroan izena emateko epea irailaren 18an amaituko da. Ikastaroa euskaraz egingo da. Parte hartzeko, 18 urte izan beharko dituzte ikasleek atal teorikoa amaitzerako, hau da, 2027ko ekainaren 30erako. Ikastaroa amaitzen dutenek Eusko Jaurlaritzak homologatutako Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale titulu ofiziala eskuratuko dute.

Atal teorikoa 150 ordukoa izango da eta urritik maiatzera egingo da. Edukiak modu praktikoa landuko dituzte, eta asteburu osoko hiru irteera ere egingo dituzte. Atal teorikoa amaitu ondoren, bi tutoretza saio izango dituzte. Horrez gain, 160 orduko praktikak egin beharko dituzte boluntario gisa. Larunbatetako saioak 9:30etik 18:30era izango dira, ordubate eta 15 minutuko bazkaltzeko tartearekin. Asteburu osoko hiru irteerak larunbateko 10:00etatik igandeko 15:00etara egingo dituzte. Izen-ematea labur.eus/debabarrenabegirale26 helbidean egin daiteke. Informazio gehiagorako, deitu 943 744 366 telefono zenbakira.



Langabezia-tasak gora egin du uztailean, Eibarren zein Debabarrenean

S.H. Abuztu hasieran emandako datuen arabera, uztailean 1.523 lagun zeuden langabezia Eibarren, eta langabezia-tasa %12,15ekoa zen. Horrela, langabeziak gora egin zuen herrian (ekainean 1.518 lagun zeuden langabezia eta langabezia-tasa %12,11koa zen).

Debabarrenari begiratuz gero, uztailean langabezia-tasa %10,2koa zen (ekainean %10,2koa zen), eta 2.640 lagun zeuden langabezia. Debak jarraitzen zuen langabezia-tasarik baxuena izaten (%5,46), eta Sorluzek zuen tasa altuena, Eibarren gainetik (%13,44).



'Agurtzen' aurretiazko borondateei buruzko aholkularitza-zerbitzua bueltan da

S.H. Debarreneko Esperientzia Eskolakoei sustatutako Agurtzen zerbitzuak bere jarduerari ekingo dio berriro irailaren 16an. Agurtzenek azken borondateei buruzko aholkularitza eskaintzen du, eta horrekin lotutako tramiteak egiten laguntzen die herritarrei. Boluntario talde batek ematen duen zerbitzua doakoa da, eta hilabete bakoitzeko lehen eta hirugarren asteazkenetan

eskaintzen da, 18:00etan, Untzagako Jubiletxean.

Antolatzaileek herritar gaztea-goengana ere iritsi nahi dute aurren, zerbitzua ez baitago adineko pertsonen bakarrik zuzenduta. "Edozeinek egin dezake", azaldu digute, eta azken borondateak alde aurretik prestatzeak edonorentzat erabilgarritasuna izan dezakeela gogorarazi dute.

Astlehenean itzuliko dira Eibarko pentsiodunen asteroko elkarretaratzeak

S.H. Udako etenaldiaren ondoren, Eibarko pentsiodunak Untzaga plaza itzuliko dira. Astlehenean, irailaren 14an egingo dute ikasturte berriko lehen elkarretaratzea, 12:00etan udaletxearen parean. Eibarren bezala, beste herrietan ere mobilizatzen hasi dira, pentsio duin eta publikoaren alde borrokatzen jarraitzeko. Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua koordinakundeak bilera egin zuen irailaren 1ean, aurrera begira bultzatu beharreko ekimenak prestatzen hasteko. Adierazi dutenez, "bertan baloratu ziren datozen hila beteetarako agertoki politiko eta ekonomikoa".



DEVI OM

YOGA ETA
AYURVEDA ZENTROA

- Yoga klaseak
- Ayurveda masajeak eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapiak naturalak

📞 641 512 059

TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)

EtxeGi
ITURGINTZA

634 40 57 83
615 78 12 30
614 21 55 13

Pagaegi 1, erdisotoa
etxegi.iturgintza@gmail.com

ek!

Zure publikitate
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

Motxila beteta iraileko aldapan gora

Irailaren hasierarekin batera, berriz bete dira herriko ikastetxeak. Batzuentzat lehen egunak izango dira, beste batzuek azken urteari egingo diote aurre, nahiko antzera jarraitzen dute batzuek eta aldaketa askori egin beharko diete aurre beste batzuek. Moduren batean edo bestean, ekainera arte euren hezkuntzarako garrantzitsua izango den ikasturtea dute aurretik.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Eibarko ikastetxe batzuek eraberrituta egingo diete aurre 2026/2027 ikasturteari. Izan ere, udan hutsik egon direla aprobetxatuta, hainbat lan egin dituzte Sansaburun, San Andresen eta Arrateko Andra Marin, “natura hurbiltzeko, atsedeen eta jolaserako gune atseginagoak sortzeko eta beroari aurre egiteko babes klimati-koak eskaintzeko helburuarekin”, Udaleko Ingurumen eta Gazteria sailetik esan gututenez.

Alde batetik, eskolen patioak “naturalizatu” dituzte, esan dutenez, eta horrek “hezkuntza-komunitatearentzat espazio erosoagoak, jasangarriagoak eta inklusiboagoak eskainiko ditu”. Eta, bestetik, eguzki-plakak ere jarri dituzte, “energia-kontsumoa eta emisioak murrizten laguntzen dutenak”.

Haurren kopurua behera

Hori oso ondo dago, baina eskoletan ezinbestekoak direnak haurrak dira



eta, urtetik urtera, gero eta haur gutxiago ditugu herriko ikastetxeetan. Eibarko hezkuntza-sarean Haur Hezkuntzako (HH) eta Lehen Hezkuntzako (LH) matrikulazioen bilakaera aztertuz gero, jaiotza-tasaren beherakadak herrian duen eragina ederki islatzen da azken bi ikasturteetako datuetan.

Iazko eta aurtengo ikasturte hasieretan lortu ditugun datuen ara-

bera, Haur Hezkuntzan jaitziera orokor eta nabarmena gertatu dela ikusi dezakegu: matrikulatutako haurren kopurua %8,9 gutxitu da urtebetean, 820 ikasletik 747ra igaroz. Beherakada hau Eibarko ikastetxe guztietan ikusi da, salbuespenik gabe: JA Mogel ikastolan 260 haur izatetik 236 izatera igaro da, La Sallen 183 ikasletik 172 ikaslera, San Andresen 146tik 131ra, Aldatzen 90tik 88ra, Urkizun 70tik 61era, Amañan 37tik 31ra eta Arrateko Andra Marin 34tik 28ra.

Lehen Hezkuntzan, aldiz, ikasle kopuruaren beherakada askoz ere neurrizkoagoa izan da: %1,4 (1.532 ikasletik 1.510era). Ikastetxez ikastetxe, JA Mogel 490etik 484ra jaitsi da; San Andres 276tik 271ra; Amaña 85etik 82ra; eta Arrateko Andra Mari 94tik 85era. Bestalde, La Sallek (296) eta Urkizuk (134) iazko ikasle kopuru berari eutsi diote LHn, eta Aldatze ikastetxea izan da matrikula pixka bat handitu duen



Aste honetan eman zaio hasiera 2026/27 ikasturteari herriko ikastetxeetan.

bakarra, 157tik 158ra igarota. Orotara, bi etapok gehituta, Eibarko eskoletan 2.257 ikasle daude matrikulatuta, iaz baino 95 gutxiago.

Eibarko Haur eta Nerabeen I. Tokiko Planean jasotzen denez, azken hamarkadan jaiotza kopurua %24 jaitsi da, baina azken urteetan iritsi diren etorkinei esker, “saldo natural negatiboaren efektuak arindu egin dira apur bat”, txostenak dioenez. Dena dela, epe ertainera eta luzera begira, HHko lehen mailetan gertatu den %8,9ko jaitsiera hori urtez urte LHko mailetara igarotzen joango da haurrak adinean aurrera doazen heinean, eta horrek esan nahi du hurrengo ikasturteetan LHn ere ikasle kopuruak behera egingo duela ezinbestean.

Haurreskolak topera

Joan den ikasturtean izandako afereen ondoren, Eibarko Haurreskoletan normaltasunera itzultzea da aurtengo helburuetako bat. Iaz herriko

>>> Eibarko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan 2.257 ikasle daude matrikulatuta, iaz baino 95 gutxiago

hainbat familia plazarik gabe geratu ostean sortutako kezkaren ondotik, Haurreskolen Partzuergoak irailean eman dituen datuek (Blas Etxebarriako Haurreskolaren datuak ez dituzte argitaratu) erakusten dute 1 urteko ikasgeletan saturazioak bere horretan jarraitzen duela:

Orbeako Haurreskolan, 1 urteko gelako 52 plazatik 52ak okupatuta daude, eta 0 urteko gelan, aldiz, 16 plazatik 11 daude beteta (5 libre); Jazinto Olaben, 1 urteko gelako 20 plazetatik 20ak okupatuta daude; Arrateko Andra Marin, 1 urteko gelako 13 plazak oso-osorik beteta daude, eta taldekatze-gelan plaza bakarrageratzen da libre; eta Amaña

da 1 urteko gelan marjina txiki bat duen bakarra, 13 plazatik 9 daudelako okupatuta (4 libre), eta 0 urteko gelan 10 plazatik 2 daude beteta (8 libre).

Datu horiek argi uzten dute 1 urteko haurren zaintzari dagokionez herriko gurasoek ia ez dutela aukerarik plaza publikorik lortzeko ikasturtea hasita dagoenean, irailerako eskaintzaren gehiena erabat beteta baitago. Zaintzarako azpiegitura publikoen muga horrek zuzeneko eragina du familien egunerokotasunean, lana eta familia uztartzeko orduan zailtasunak biderkatuz. Horri aurre egiteko, adibidez, joan den ikasturtean hainbat familiek



Material berria, liburuak, jantokia, zaintza zerbitzua... Familiek hainbat gastu egin behar izaten dituzte kurtso hasieran.

>>> Ahalegin ekonomikoaz gain, ikasturte hasierak ahalegin logistikoa ere eskatzen die familiei

Eibartik kanpoko zentroetara eramane zituzten umeak.

Familien gastuak, laguntzak eta kontziliazioa

Ikasturte hasierak ahalegin ekonomiko zein logistiko handia eskatzen die familiei. Herriko eskoletan galdetuta, zaila egiten zaie eskolara bueltak familia bakoitzarengan duen kostua kalkulatzeko. “Gauza batzuen kostua finkoa da, baina beste gauza batzuk gehitu behar dira familia bakoitzaren beharren arabera (jantoki zerbitzua, zaintza zerbitzua, eskolaz kanpoko ekintzak...). Horrek diru kopurua gehitzen du”, dioskue La Salletik. “Familia bakoitzak

modu ezberdinean bizi du presio ekonomiko hori, beraien egoeraren eta familia bakoitzak behar dituen zerbitzuen arabera. LH-n HH-n baino material gehiago erabiltzen dute, liburu fisikoak adibidez, eta horrek zifra handitzen du”. Bestalde, Arrateko Andra Marikoen kalkuluen arabera, “familiek 120-150 euro arteko gastua dute ikasle bakoitzeko”.

Kopuru handia den ala ez familia bakoitzaren egoerak zehazten du. Batzuentzat gastu handia denez, laguntzeko prest agertzen dira ikasle txikiak zein erakunde publikoak. La Salletik esan digutenez, adibidez, “aurreko ikasturtean erabilitako ma-

terialak birziklatzeko gomendatzen dugu”. Baina ez hori bakarrik. “Uste dugu batzuei ez zaiela heltzen ematen diren beka eta dirulaguntza guztiekin. Beken bitartez jasotzen duten diruak ez du estaltzen ikasturte bateko jantokia edo behar dituzten materialak, adibidez. Beraz, nola lagundu dezakegu gehiago? Dirulaguntza horiek handitzen, Udalak eskura dituen zerbitzuen bitartez... Guk, eskolan, ahal duguna egiten dugu laguntzeko”.

Eibar BHI-n, adibidez, ‘Liburu Solidarioa’ izeneko programa ezarri dute, DBHko ikasleen testu-liburuak maileguan kudeatu eta familien gastua arintzeko sistema. Horrela, irailean 81 (DBH 1) edo 85 euro (DBH 2-4) ordaintzen dira material pedagogiko eta liburuengatik, eta baldintza bakarrak dira liburuak forratzea eta ikasturte amaieran egoera onean itzultzea.

Arrateko Andra Marin honakoa kontatu digute: “Gure ikasle gehie-



Ikasturte berriak erronka berriak ekartzen dizkie haur, familia zein irakasleei.

nak bekadunak dira eta ez dute materialik ordaindu beharrik. Hala ere, Guraso Elkarteren kuota ordaintzeko laguntza genuen lehen, baina ia z kendu egin zuten eta familia askorentzat 'faena' izan da. Ordaintzen dute, baina diru hori asko da eurentzat. Bestalde, Barnetegira joateko dirulaguntzak egotea ere eskertuko genuke. Guk erraztasunak jartzen dizkiegu gurasoei, baina batzuk ezin dute joan hala ere”.

Izan ere, arlo finantzarioari antolaketaren zama gehitzen zaio iraillean. Eustaten arabera, EAE n lanean ari diren gurasoen %29,2k zailtasun handiak ditu lana eta seme-alaben zaintza uztartzeko. Erronka horri aurre egiteko, gurasoen %63rentzat lana eta familia bateragarri egiteko ordutegi-malgutasuna da neurririk garrantzitsuenak.

Agente guztien ongizatea

Ikasturte berriaren hasierak hezkuntza-komunitateko kide guztien

>>> Eibarko Haur eta Nerabeen Diagnostikoaren arabera, ikasleen % 60,2 pozik dago bere ikastetxean

(ikasleen, familien zein irakasleen) ongizate sozioemozionala jartzen du erdigunean. Arrateko Andra Marikoek esan digutenez, “ez dugu arazo larririk atzematen ikasleen buru osasunari dagokionez ikasturte hasieragatik. Ikasleak gustura etortzen dira, gurasoak gustura daude... Ez da gatazka handirik egoten”.

La Sallen saretzeari ematen diote garrantzia (Gurasoen Elkartea, familiak, eskola eta parte hartzen duten agente guztiak), umeek ahalik eta modurik onenean erantzuteko ikasturte hasieran sortzen diren aldaketei eta egoera berriei.

Eibarko Haur eta Nerabeen Diagnostikoaren arabera, ikasleen

%60,2 pozik dago bere ikastetxean, %82,6k lagunak ditu eskolan eta %60,8k sentitzen du irakasleek nahikoa edo asko entzuten dietela arazoren bat kontatzen dietenean. Hala ere, datuek estresari eta osasun mentalari lotutako arreta-seinale batzuk ere azaleratzen dituzte. Eibarko haur eta nerabeen %25,1 normalean urduri sentitzen da, %36k nekea adierazten du eta %24,8k zailtasunak ditu lo egiteko. Gainera, adinean gora egin ahala, nerabe zaharrenek garrantzi handiagoa ematen diete familia-harremanei (hitz egiteko denbora izateari eta entzuna izateari), eskola-kargari eta eguneroko presioari aurre egiteko babes-puntu gisa.

ANIMADEBA

Irailaren 9tik 12ra bitartean, animaziozko zinema hartuko du berriz Deba, Animadeba jaialdiaren 19. edizioarekin. Lau egunez, herria animazioaren topagune bihurtuko da, proiektzioak, lehiaketak, hitzaldiak eta bestelako jarduerak uztartuz.

Urtez urte, animaziozko zinemaren sorkuntza eta aniztasuna erakusteko plaza bilakatu da jaialdia, bertako zein nazioarteko lanak publikoarengana hurbilduz. Aurten ere, adin eta gustu askotarako proposamenek osatuko dute egitaraua.

Hona hemen datozen egunetarako prestatu duten programazioa:

IRAILAK 11

09:00	EPAIMAHAI GAZTEAREN IKUSTALDIA	FILMAK	MENDATA BHI
10:00	ANIMAZIO JAIALDIAK ETA HORIEN ERAGINA	WORK SHOP	HIRU UHINAK
11:00	MAKUSI: ZIENTZIA PIZTIA TELESAILA	UMEAK	KUTXA ZURIA
11:30	ANIMAZIO INDEPENDENTEA EKOIZTEN	WORK SHOP	HIRU UHINAK
12:45	LEHENIK MARRAZTU, GERO ANIMATU	WORK SHOP	HIRU UHINAK
17:00	FESTIBAL GONBIDATUA	FILMAK	KUTXA ZURIA
19:00	SAIL NAGUSIA (1)	FILMAK	KUTXA ZURIA
20:00	LA BOBINA	PODCAST	TERRAZA
21:00	JOSE LUIS ÁGREDA	EITB SARIA	KUTXA ZURIA
21:15	DEKORATUA	FILMA	KUTXA ZURIA
23:00	MASKAK	KONTZER.	TERRAZA
00:00	DJ SIWANABA	KONTZER.	TERRAZA



IRAILAK 12

10:00	CASE STUDY BIDEO JOKOAK	LAB	KULTUR ELKARTEA
10:00	STOPMOVIDAS	WORK SHOP	HIRU UHINAK
12:00	JOKO-LOGIKAK	WORK SHOP	KULTUR ELKARTEA
13:30	XAHU	KONTZER	ITSAS LABARRAK
17:00	MUMBO JUMBO	FILMA	KUTXA ZURIA
19:00	SAIL NAGUSIA (2)	FILMAK	KUTXA ZURIA
20:00	BINGOAAAA ALBINA&DIVINA	BINGOA	TERRAZA
22:00	SARI BANAKETA		TERRAZA
22:30	OTAMAR	KONTZER.	TERRAZA
22:30	ASFA	KONTZER.	TERRAZA
01:00	DJ TXOLA TA POTXOLA	KONTZER.	TERRAZA

DEBABARRENEAN ZEHAR



Hurrengo atalean, Debabarrenean mugitzeko moduei begiratuko diegu. Trena, autobusa, txartelak, prezioak, ordutegiak eta herrien arteko konexioak izango ditugu hizpide, eskualdean batetik bestera joatea zenbateraino den erraza —edo ez hain erraza— ikusteko.

Garraio publikoan barrena ibiliko gara, herriz herri, aukera desberdinak probatuz eta zalantza arruntenei erantzunez. Zein da aukerarik azkarrena? Eta merkeena? Ondo konektatuta al dago Debabarrena? Hurrengo atalean, erantzunak!

ALBISTEAK

Ongizatea erronka kolektibo gisa jarri du mahai gainean Elgoibarko Ongizatearen Plazak.

Debabarrenean gora egin du langabeziak, eta Soraluezen %14,42ra iritsi da tasa.



Irailak 11

MUSIKA	XXI. FOLKEZBLAI JAIALDIA	18:30	ORBE PLAZA (ERMUA)
ERAKUS.	ANARENE	18:30	KULTUR ETXEA (SORALUZE)
MUSIKA	AGORRAFEST	18:30 etik	HAINBAT TOKI (EIBAR)
MUSIKA	THE JACINTONES	20:30	ASIGOR TABERNA (SORALUZE)
JAIK.	SAN NIKOLAS JAIK	11:00	LASTUR (ITZIAR)
IKUS-ENTZ	ANIMADEBA FESTIBALA	EGUN OSOA	HAINBAT TOKI (DEBA)

Irailak 12

MUSIKA	XXI. FOLKEZBLAI JAIALDIA	12:30	ORBE PLAZA (ERMUA)
LASTER.	BTT LASTERKETA	10:00	MINTXETA (ELGOIBAR)
MUSIKA	AGORRAFEST	10:30 etik	HAINBAT TOKI (EIBAR)
TAILER.	BATU KANTURA!	11:00	TOLAREKUA ARETOA (SORALUZE)
AZOKA	BIGARREN ESKUKO AZOKA	10:00	GOÑATI FRONTOIA (MENDARO)
BISITA GIDAT.	MAREARTEKO ZABALGUNERA	10:00	SAKONETAKO PARKINA (ITZIAR)
IKUS-ENTZ	ANIMADEBA FESTIBALA	EGUN OSOA	HAINBAT TOKI (DEBA)
LEHIAK.	57. KALEKO MARGO SARIKETA	08:00	AGIRRE JAUREGIA (DEBA)
MUSIKA	OIER GURRUTXAGA KON-TZERTU INTERAKTIBOA	14:30	CEVICHE JATETXEA (DEBA)
MUSIKA	REGGAE KONTZERTUA: DENJAH MAN	19:00	ONDARGAIN TABERNA (DEBA)

Irailak 13

MUSIKA	XXI. FOLKEZBLAI JAIALDIA	13:00	ORBE PLAZA (ERMUA)
ERRONK.	LIZAGASAR ERRONKA	11:00	LIZAGASAR SAGARTOKIA (ELGOIBAR)
IRTEER.	EMAKUMEEN MENDI IRTEERA: 4 ERMITA	09:30	PLAZA BARRIA (SORALUZE)



IRATI AZPILIKUETA

Euskal Herria irabaztera

Azkenaldian gero eta zailagoa da egunerokoaren gertatzen ari dena ez ikustea. Etxebizitza lortzea ia ezinezko bihurtzen ari da, lan prekarioak gero eta normalagoak dira eta ziurgabetasuna gure belaunaldiaren bidelagun bilakatu da. Aldi berean, gerrak, krisiak eta askotariko zapalkuntzak ugaritzen ari dira. Badirudi zerbait aldatzen ari dela, eta galdera ez da hori gertatzen ari ote den, baizik eta aldaketa horrek zein norabide hartuko duen.

Ezinegon handiko garaiak dira. Eta ezinegon horren aurrean, badira haserrearen antolatutako eta eraldaketara bideratu nahi dugunak, baina baita kontrako norabidean doazen proiektuak ere. Oldarraldi erreakzionarioa indartzen ari da: sistema kapitalistaren krisiaren ondorioak gainditu beharrean, beldurra, bazterketa eta autoritarismoa proposatzen ditu, arazoaren errudunak bilatuz.

Hor dago faxismoaren arriskua. Ez da iraganeko kontu bat, ezta muturreko talde batzuetara mugatzen den zerbait ere. Faxismoa testuinguru berrietara egokitzen den ideologia da, eta gaur egun eraldaketa sozialaren potentzial handiena duten borrokak ditu jomugan, feminismoa kasu. Horregatik, ezin dugu faxismoaren aurka borrokatzeko azken muturrera iritsi arte itxaron.

Euskal Herrian badugu zer esana. Faxismoak espainolismoaren eta jakobinismo atzerakoiaren forma hartzen du, gure herriaren askatasunaren eta erabakitze gaitasunaren aurka eginez. Baina urte luzez eraikitako euste-horma ere badugu: borrokaz borroka, antolakuntzaren bidez, beste herri ere du bat eraikitzen ari gara.

Horregatik, antifaxismoa ez da faxisten aurrean erantzutea soilik. Guretzat, bizitza duinak erdigunean izango dituen Euskal Herri aske bat eraikitzea ere bada. Gazteok badugu horretan ardura berezia. Ez gara etorkizuna: orainaldia gara, eta orain ari dira gure bizi-baldintzak eta etorkizuna erabakitzen.

Datorren irailaren 13a ez da egutegiko beste egun bat izango. Donostian kaleak hartuko ditugu, bizi dugun egoeraren aurrean posizioa hartzeko eta gure herriaren aldeko apustua egiteko. «Euskal Herria irabaztera! Faxismoari ez» lelopean, Euskal Herria faxismoaren aurrean euste-horma izateaz gain, alternatiba emantzipatzaile bat dela erakutsi nahi dugu.

Garaiak borroka eskatzen du. Horregatik, irailaren 13an Donostian elkartuko gara: faxismoari ezetz esateko, baina batez ere Euskal Herria irabazteko.

“Antifaxismoa ez da faxisten aurrean erantzutea soilik. Guretzat, bizitza duinak erdigunean izango dituen Euskal Herri aske bat eraikitzea ere bada”

ARRA- TEKO JAIXAK



ARGAZKIAK:

...eta kitto! / Eibarko Udala

IRAILAK 7



HERRI KIROLAK

Arrate eguneko bezperan, herri-kirolen erakustaldia ere izan zen, eta aizkolari zein harrija-sotzaileek beren trebezia erakutsi zuten.





JAIXAK HERRIXAK HERRIXANDAKO

Jaixak Herrixak Herrixandako jai batzordeak herri-bazkaria eta txosna antolatu zituen, eta Elektrotxuflak arratsaldean girotu zuen. Gavean, Bad Sound DJ Set eta Maruxak taldeek kontzertuak eskaini zituzten zelaian.



SOBA

Soba kolektiboak «Zelaian» saioa eskaini zuen gabezan, Arrateko bezperako jai-giroari musika eta ukitu berezia gehituz.



BERTSO AFARIA



...eta kittol!-k antolatutako bertso afarian, Andoni Egaña, Maddi Ane Txopere-na, Saioa Alkaiza eta Aitor Mendiluze aritu ziren bertsoetan.

KITTONBOLIA

Arrate egunean eguraldiak lagundu zuen eta jende ugari hurbildu zen goizean goiz Kittonbolara. Herritarren erantzuma izugarria izan zen: lau ordu pasatxoan boleto den-denak saldu genituen! Ondorioz, opariak ere ziztu bizian banatu ziren, eta jende asko boleto gabe geratu zen. Guretzat bereziki pozgarria da herritarren babesa horren handia izan dela ikustea.

MILA ESKER Kittonboliaren arrakasta posible egin duzuen guztioi: opariak eman dituzuen establezimendu, elkarte eta enpresei, eta, nola ez, boletoak erostera hurbildu zareten herritar guztioi.



LAGUNTZAILEAK

- +QWAPOS
- AITZIBER BADIOLA



- AKARA TABERNA
- ALBERT TABERNA
- AMANAÑO JAIK
- ARATATTO
- ARREGI DOMINGUEZ ARRAINDEGIA
- ARTOLA JATETXEA
- ASKASIBAR KIROLDENDA
- ASPE PELOTA
- ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA
- AZITAIN GASOLINDEGIA
- AZPIRI JOSTUNDEGIA
- AZPIRI SANEAMENDUAK
- BACOLEKU EGO-GAIN
- BACOLEKU URKIZU
- BAISI TABERNA
- BALKOI TABERNA
- BALI GIMNASIOA
- BASAGUNEA
- BASOBIZIAK
- BELEKO
- BOLINTXO OKINDEGIA



- BORDA TABERNA
- BOSSY GOZOTEGIA
- BULEBÚ JATETXEA
- BURBUJAS Y MAS LURRINDENDA

- CAPI ESTETIKA
- CHIC ESTILISTAS
- CHIDO
- CLOSET
- COMERCIAL ZABALA
- CORRAL JOSTUNDEGIA
- DENETIK
- DEPOR TABERNA
- DEPOR ELKARTEA
- DIRDAI BITXITEGIA
- DITARE MERTZERIA
- EGUREN ELEKTRODOMESTIKOAK
- EIBAR IGERIXAN
- EIBARKO DENDARI ELKARTEA
- EIBAR ESKUBALOIA
- EIBAR RUGBY TALDEA
- EIBAR SASOIAN ONGIZATE ZENTROA
- EIBARBUS AUTOBUSAK
- EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA
- EIBARKO UDALA KULTURA SAILA



- EL CANTON DE LA AVENIDA



- ELITE OFICINAS
- ELORTZA BOTIKA
- EMANKOR TALDEA ERAIKUNTZAK



- EROSKI EIBAR HIPERMERKATUA



- ESKOZIA LA BRAVA
- EXCLUSIVAS JAVI
- GERRITEK INFORMATIKA
- GIGIL BITXIAK



- GOIKO LUZ
- GRATZINA JANTZIDENDA
- GUBY JANTZIDENDA
- GURE ESKU DAGO
- GURIDI TABERNA
- HARTARA ARTISAU OSAGARRIAK




- HELMET HOUSE
- HIRUOK ASTELENA GASTROBAR
- I´AM ILEAPAINDEGIA
- IBARKURUTZE FRUTADENDA



• IBONE ESTETIKA



- IDOIA BERGARETXE ESTETIKA
- INDATEAM
- INDUSTRIAS MAIL
- INDUSTRIAS ROSI
- INGURU ABENTURA
- IPAR SURF SKATE ESKOLA
- IREI ESTETIKA
- IRRITSA JANTZIDENDA



- ITXESI BELARDENDA
- IZADI LORADENDA
- IZANE
- JAUREGI
- JAZ ZUBIAURRE
- JERONIMO JOSTAILUDENDA



- JORGE VEGA S.L. IGELTSERITZA
- K2 BITXIAK ETA ESKULANAK
- KAMALA YOGA
- KANTOI GASOLINDEGIA
- KAXA



- KENKO OSASUN ETA ONGIZATEA
- KERALA ESTETIKA
- KILI-KLIK ARGAZKILARITZA



- KIÑU BURDINDEGIA
- KIA NAIA CAR
- KLAUS DEKORAZIOA
- KOKEIN TALDEA
- KOMEDIA FEST
- KONTENT TABERNA
- KOPINA JANTZIDENDA
- KOSKOR TABERNA
- KULTU TABERNA
- LABORAL KUTXA
- LAHIDALGA ZAPATADENDA
- LAKETT ESTETIKA
- LANDARE BELLEZA SALUDABLE
- LEDER POLTZO ETA OSAGARRIAK
- LOLA'S JANTZIDENDA
- LUSAI JATETXEA
- MARSÍ LOREDENDA
- MOAPICS
- MUGIKA HARATEGIA
- MUMA JANTZIDENDA
- NHAREA MASAJEAK
- NEURE DEKORAZIOA
- NO COMMENT JANTZIDENDA
- NUVOLA JATETXEA
- OBERENA HARATEGIA
- OGIBERRI MUXU

• ORIGINAL KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



- OTEGI HARATEGIA URKIZU
- OTEGI HARATEGIA SOSTOATARREN
- PARRIAUNDI OKINDEGIA
- PISSA ZAPATADENDA
- PUBLIRESA PUBLIZITATEA
- S.D. EIBAR FUNDAZIOA
- SAN ANDRES GOZOTEGIA
- SHEIKO JATETXEA
- SOSOLA BASERRIA
- SU TA GAR TALDEA
- SUBEROA TABERNA
- TIRO PITXON JATETXEA
- TRINKETE TABERNA
- TUTULO OKINDEGIA
- TWINS JANTZIDENDA
- TXUKUNA MERTZERIA
- TXUTXUFLETAS GOZOKIAK
- UMEA JANTZIDENDA
- UNBE TABERNA
- URDANIBIA JANTZIDENDA
- URKOTRONIK
- USTEKABE TXARANGA
- XABALO
- XARE JANTZIDENDA
- ZAIZOI TABERNA
- ZELAI- BIDE TABERNA

ANTOLATZAILEA



IRAILAK 8



MEZA, PROZESIOA ETA DANTZAK

Arrateko Amarem egunean, Meza Nagusia egin zen 11:00etan. Mezaren ondoren, prozesioa egin zuten santutegiaren inguruan, Usartza Txistulari Taldearen eta Kezka Dantza Taldearen parte-hartzearekin.





Ondoren, Arrateko Amarem ezpata-dantza eta beste hainbat dantza eskaini zituzten. Aurten, gainera, Argentinako Tandilgo Betirako euskal dantza taldeko 11 dantzarik parte hartu zuten.



ARRATSALDEA

Arratsaldean, Dantza Solte Txapelketa eta Hiru Txirlo Saria egin zituzten, eta ondoren Mugi Panderoa erromeria taldearekin dantzaldia izan zen.





GIROA

Eguraldiak ere bat egin zuen jaiekin, eta jendez bete zen zelaia. Goizetik arratsaldera, familiek eta lagun taldeek eguna bertan igaro zuten, bazkari, musika eta ospakizunem artean. Beste urte batez, Arrate eihartarrem topaleku izan da, jai-giroa eta ohitura uztartuz.





GORKA ERRASTI

Nostalgia

Zenbat gustatzen zaigun nostalgia. Are gehiago bizi ditugun garai nahastu hauetan. Ni ere nostalgiko hutsa naiz: 70-80 hamarkadetako musika entzuten dut; eta Goonies, Gremlins, Ghostbusters edo Back to the Future bezalakorik jada ez da ekoizten. 1984. urtea izan zen zinemaren historiako urterik onena!

Baina ezin gara nostalgian uneoro bizi. Berriki egin den Eibarko Diagnostiko Sozialak arrisku hori mahaigaineratzen du. Txostenak dio hiria konpondu gabeko trantsizio batean murgilduta dagoela. Biztanleriaren zati handi bat (batez ere nagusienak eta bertakoak detodalavida) “Urrezko Aroko Sindromea” ainguratuta dago. Sindrome horrek pasatako garaia erromantizatzeko abilezia du. Dena zen zoragarria, lasaia eta alaia; orain, orde, dena da iluna, grisa... eta noski, ez segurua. Segurtasuna ere koktel berean sartzea gustatzen zaigu eta.

Soziologikoki, atzera begira ibiltze horrek, jada existitzen ez den hiriaren aldeko dolua egitea eragozten digu. Gainera, arriskutsua da, aniztasun demografikoa herriaren esentziaren mehatxutzat hartzen duelako.

Diagnostiko berean, Udaltzaingoak azken urtean egindako esku-hartzen ikerketa egin da. Eta XXI. mendeko gizarte gehienetan gertatzen den bezala, segurtasun ezaren eta beldurraren pertzepzio subjektiboak ez dira datuekin korrelazioan jartzen. Delinkuentzia inzibismoarekin nahastu ohi dugu.

Horrek guztiak, gainera, diskurtso erraz eta eskuinekoekin bat egiteko arriskua du. Klean iskanbila edo liskarra jatorri atzeritarreko eibartarrek egin badute, lehen eibartarrak jatorrak ginela esango dute batzuk. Oraingo eibartar berriak maltzurak izango bailiran eta denak saku berean sartuta. Noski, aurreko hamarkadetan gertatutako borroka eta liskarrak ahaztu edo leunduta.

Arroxa koloreko nostalgia hori atzean uzteko unea da. Elkarbizitza landu eta praktikatzeko garaia. Batak bestea aitortzeko ordua. Nostalgia ez du oraina modu objektiboan ikusten uzten. Nostalgia etorkizuna berrasmatzea eragozten du. Iragana aintzat hartuko duen etorkizun berri bat denon artean josi behar dugu. Eibar trantsizio horretan dagoen hiria da eta iparrorratza dugu faltan.

**“Klean iskanbila
edo liskarra jatorri
atzeritarreko
eibartarrek egin
badute, lehen
eibartarrak jatorrak
ginela esango dute
batzuk. Oraingo
eibartar berriak
maltzurak izango
bailiran eta denak
saku berean sartuta”**

BERBETAN
JAIALDIA

SARDINA FRESKUE IKUSKIZUNA



Irailak 22, asteartea, 17:30, Untzagan
(euria egingo balu Errebalen)

eta kitto!
euskara elkarteak



EIBAR



GIPUZKOA



Zarautzen aurka hasiko du liga, bihar, CD Urki-k

E.B. Bihar hasiko du denboraldia Ohorezko Erregional Mailako CD Urki taldeak. Iaz mailaz jaitsi zen Zarautz KE izango du arerio, 12:00etan, Asti zelaian jokatu den partidari.

Ikusi beharko da Urkik denboraldia nola hasten duen eta, emaitza aurreratzea zaila den arren, asmatzeko aukera eman nahi die klubak zaletuei. Horretarako, 'porra' jarri du martxan, euren emaitza eta herriko beste bi talderenak asmatzeko.

Oraingoan, adibidez, Zarautz-Urki partidaz gain, F Ligako SD Eibar - FC Badalona eta Hypermotion Ligako Celta Fortuna - SD Eibar neurketen emaitzak asmatu beharko dira, baina hurrengoetan beste kirol batzuetan jarduten duten taldeak ere sartuko dira jokoa.

Hurrengo irudian aurkituko dituzue porran parte hartzeko baldintzak.

	JARDUNALDI BARDITZEAN 3 partida izango dira: CD Urki + herriko beste bi talde.
	5 JARDUNALDIRO Kiniela berezia: 5 partida izango dira.
	PARTE-HARTZEA 2 € Dirua botean pilaiko da.
	SARI BEREZIA 5 jardunaldik behin, botesz gain, Mugikako saski bat.
	PORRA JARTZEKO Astiazkenerik ostiralerara 20:00ak arte.
	LEKUA Bar Buenos Airesen.
	IRABAZLEA Jardunaldia irabaztean jakinaraziko da.



Deporreko mendizaleek bi irteera egingo dituzte irailean, Etxaurira eta Pirinioetara

E.B. Eibarko Klub Deportiboaren Mendi Batzordea jardunera itzuli da eta bi irteera prestatu ditu irailarako. Lehen irteera Trabukoren Bidearekin jarraitzeko egingo dute, irailaren 19an. Hain zuzen ere, bidearen seigarren etapa izango da egingo dutena, Etxauritik Asiainera, Etxauriko Haitzak (1.136 metro) tontorrera igoz. "Nafarroan zehar ibiltzeko aukera izango dugu, bere paraje ederrenetako batetik", dioskue Deporrekoek. Ibilbidea 19 kilometrokoa izango da, baina nahi dutenek 15 kilometroko bidea hartzeko aukera izango dute.

Informazio gehiago lortzeko eta izena emateko: www.deporeibar.com/mendia edo mendia@deporeibar.com.

Pirinioetara irteera

Bigarren irteera Pirinioetara egingo dute, irailaren 26 eta 27ko asteburuan, Morkaiko Elgoibarko mendizaleekin batera. Bertan, bigunetan, Mendebaldeko Pirinioetako bi ibilbide egingo dituzte.

Irailak 26, larunbata, Hechotik abiatuko dira, Pta. Remirez eta Foraton lepoa zeharkatu eta Gabar-

ditoko aterpera iristeko. Ibilbideak 17,6 kilometro izango ditu, 1.532 metroko desnibel positiboarekin eta 992 metroko negatiboarekin.

Hurrengo egunean, irailaren 27an, Selva de Oza ingurutik abiatuta Gorreta d'os Gabachos aldera joango dira, Linzako aterperaino. Bigarren ibilbideak 16,25 kilometroko luzera izango du, 1.198 metroko desnibel positiboarekin eta 989 metroko negatiboarekin.

Irteera irailaren 26ko goizaldean egingo dute autobusez. Ostatuan Gabarditoko aterpean egingo dute, eta prezioaren barruan bidaia, afaria, logela eta gosaria sartzen dira. Egun bakoitzeko bazkariak parte-hartzaile bakoitzaren kontura izango dira, baita hilaren 26ko gosaria ere, bidean egingo dutena. Aterpean lo egiteko izara-zakua eraman beharko da.

Bazkide federatuentzat 150 euroko prezioa izango du irteerak, eta bazkide ez-federatuentzat 170 eurokoa. Izena ematean 50 euroko fidantza ordaindu beharko da. Izen-ematea irailaren 9an irekiko da, 18:00etan, Eibarko Klub Deportiboaren eta Morkaikoren webguneetan aldi berean.



Irailaren 19an hasiko da futbol zaletuaren liga

E.B. Aurten talde berri bat gehitu da ligara, Athlete Terraza, eta hamar izango dira guztira. Horrela, denek jokatu dute asteburuero, atsedetik hartu gabe.

Hauek dira lehen jardunaldiko partidak: Bar Marem - Garajes Garcia, Athlete Terraza - Limpiezas Rueda, Bergara Pneumatikoak - Adahi Etxegi, Xania Taberna - Baserri, Kalaka Buenos Aireses - Malape Taberna.

Partidak, orain arte bezala, Unben jokatu dira.



Pello Osoro Patagonman 2026 triatloi proban lehiatuko da, Txilen

E.B. Triatloilari eibartarra Txileko Aysen eskualdean abenduaren 6an egingo den muturreko triatloi proban izango da. Patagonmanek 3,8 kilometroko igeriketa, 180 kilometroko txirrindularitza eta maratoi bat uztartzen ditu.

Igeriketa Aysen fiordoaren ur hotzetan egingo da, txirrindularitza Carretera Austral errepidean zehar, eta azken 42 kilometroko lasterketa Puerto Ibáñezera iritsi arte. Triat-

loi luzeko proba gogorrenetako eta ikusgarrienetako bat da.

Osorokibilbide teknikoetan, mendiko probetan eta distantzia luzeko lehiaketetan duen sendotasunagatik nabarmendu dute, eta Patagonmaneko antolatzaileek haren parte hartzea "errendimendu hutsetik harago doazen esperientzien bila dabiltzan" eliteko kirolarientzat probak duen erakargarritasunaren erakusgarri dela adierazi dute.



SD Eibar-ek Celta Fortuna taldeari egingo dio bisita, bigarren postuari eutsi nahian

E.B. Lehen jardunaldian lagatako aho-zapore txarra gozatu du SD Eibar-ek azken hiru partidetan. Izan ere bederatzi puntu eskuratu ditu eta Hypermotion Ligako 2. postuan kokatu da.

Joan den domekan, Granada CF jaso zuen Eibarrek eta, hasiera batean partidu gogorra zirudiena, neurraketa gozagarria bihurtu zen eibartarrentzat. Horrela, 3-0 irabazi zieten andaluziarrei eta sailkapenaren bigarren postuan

daude bederatzi punturekin. Hurrengo jardunaldia datorren astelehenean jokatu du, irailak 14, 20:30ean, mailaz igo berri den Celta Fortunaren aurka, Abanca Balaidos zelaian.

Eibarrek laugarren garaipena jarraian lortu nahi du Celtaren bigarren taldearen aurka. Granadaren aurka txartel gorria ikusi ondoren, Jair atzelariak ezin izango du jokatu, ezta zigortuta jarraitzen duen Magunazelaiak ere.

Atletismo Eskolan izena emateko epea zabalik

E.B. Eibarko Klub Deportiboaren Atletismo Eskolak 2026/2027 denboraldirako izena emateko epea zabaldu du.

Korrika, jauziak eta jaurtiketak gustuko dituzten haur eta gazteei zuzenduta dago, eta entrenamenduak taldean, modu seguruan eta dibertigarrian egiteko aukera eskainiko du.

Parte-hartzaileak hiru kategoriatan banatuko dituzte adinaren arabera: Benjamin mailan LH4ko ikasleak eta 2017-2018 urteetan jaiotakoak arituko dira; Alebin mailan, LH5 eta LH6koak eta 2015-2016an jaiotakoak; eta Infantil mailan, DBH1 eta DBH2koak eta 2013-2014an jaiotakoak.

Entrenamenduak irailaren 9an hasi ziren Unbeko atletismo-pistan, eta iraila probatzeko doan izango da.

Saioak, normalean, arratsaldeko 17:05etik 18:45era egingo dituzte. Parte hartzeko, Eibarko Kirol Patronatuko eta Klub Deportiboko bazkide izatea beharrezkoa izango da.

Denboraldian zehar, entrenamenduez gain, Gipuzkoan egingo diren kros eta pista-probetan parte hartuko dute, baita Gipuzkoako Txapelketetan ere.

2027ko ekainaren hasieran edo erdialdean amaituko dute denboraldia, eta azken astean amaiera-festa egingo dute.

Markel Gutierrez izango da Atletismo Eskolako arduraduna, Nora Martinez, Farah Chajarne, Elene Beobide eta Martina Egaña klubeko atleta eta entrenatzaileen laguntzarekin.

Informazio gehiagorako atletismoa@deporeibar.com helbidera idatzi.



Kristina Ruiz bere kategorian gailendu zen sprint modalitateko Mutrikuko Triatloian

E.B. Iraila emaitza onekin hasi du JAZ Eibar Triatloi Taldeak. Joan den domekan, irailaren 6an, XII. Sestao Triatloia jokatu zen sprint distantzian, eta 300 parte-hartzaile inguru bildu ziren bertan. Eibartarrek bi podium lortu zituzten, Ugaitz Gartziak eta Kristina Ruizek euren kategorietan garai-pena eskuratuta.

Ugaitz Gartzia izan zen helmugara iristen lehen eibartarra. Sailkapen nagusian 20. postuan amaitu zuen, 1:08:49ko denborarekin, eta JNM1 kategorian lehen postua lortu zuen. Jokin Amorrosta 24. izan zen sailkapen nagusian, 1:09:16ko denborarekin, eta bosgarren Sub-23 kategorian.

Beteranoen artean, Roberto Gartziak 80. postua eskuratu zuen (1:19:51), V2M kategorian 15. amaituta. Txus Sanchezek, berriz, 119. postuan amaitu zuen (1:34:11), V2M kategorian 26. izanda.

Emakumezkoetan, Kristina Ruiz izan zen nabarmenena. 1:22:04ko

denborarekin, sailkapen nagusiko 18. postua lortu zuen eta V2F kategorian garaile izan zen. Idoia Uruñuelak ere proba amaitu zuen, 1:39:22ko denborarekin sailkapen nagusiko 42. postuan eta ABF kategorian 23. postuan.

Taldeakako sailkapenean, JAZ Eibar Triatloi Taldeak seigarren postua eskuratu zuen, 3:37:16ko denbora metatuarekin.

Alustiza Desafio Urbion-en

Bestalde, zapatuan, irailaren 5ean, Desafio Urbión 2026 mendi-lasterketa jokatu zen. Guztira 507 atletak eman zuten izena eta 339k soilik amaitu zuten proba. JAZ Eibar Triatloi Taldeko Jonatan Alustizak 37 kilometroko distantzian parte hartu zuen, Muchachón, Laguna Negra eta Urbion tontorra bezalako gunetatik igarotzen zen ibilbidean. 6:52:22ko denborarekin amaitu zuen proba, sailkapen nagusian 199. eta Veterano A kategorian 66. postua lortuta.



Real Madrilen erasoari eutsi eta partidurik galdu gabe jarraitzen du SD Eibar-ek

E.B. F Ligako bigarren jardunaldia jokatu zuen domekan SD Eibar-ek. Partidu zaila zuen aurretik, Real Madrili egin behar baitzion bisita, baina eibartarrek lehen jardunaldian erakutsitako irudi ona azaldu zuten eta puntu batekin itzuli ziren 0-0 berdindu ondoren.

Madrilgo izarrek ez zituzten eibartarrak liluratu eta armaginek oso ondo eutsi zieten etxekoek izan zituzten aukera anitzei (29 jaurtiketa

egin zituzten madrildarrek, bakarra eibartarrek). Zentzu horretan, aipatzekoa da Bayern München taldetik lagata etorri den Anna Wellmann atezainak egindako lana, zortzi geldiketarekin.

Berdinketa horrekin, Eibarrek lau puntu ditu orain eta sailkapeneko bosgarren postuan dago, Real Madrilekin berdinduta. Hurrengo partiduan Badalona Women taldea jasoko du domekan Ipuruan, 19:30ean.

Simon Aldazabal lasterketa jokatu da domekan

E.B. Domekan, irailak 13, Simon Aldazabal Arrateko Igoera Orbetik lasterketaren 31. edizioa jokatu da, Arrateko Jaien egitarauaren barruan, Eibarko Klub Deportiboak antolatuta.

Lasterketaren irteera Deporren egoitzaren paretik egingo da, Toribio Etxebarria kalean, 10:30ean. Parte-hartzaileek Eibar zeharkatu eta, Azitainen burdinezko zubia igaro ondoren (La Salle ikastetxera doana), Orbeo pistatik egingo dute gora Arrateraino. Horrela, ibilbideak 5,5 km izango ditu eta korrikalariak % 20-tik gorako maldak gainditu beharko dituzte.

Frogaren errekorrak Cristina Loediren (32'21") eta El Hassan Oubadiren (25,2") esku daude 2011. urteaz geroztik. Iaz, txapela etxean geratu zen, Pello Osoro izan baitzen irabazle (25'41") Oier Etxeberria azpeitiarraren (26'55") eta Eneko Fernandez (27'24") eibartarraren aurretik.

Denbora horiek hausteko edo, beste barik, lasterketa egiteko, parte hartzeko gonbitea luzatu dute antolatzaileek. Gainera, kategoria ezberdinetako lehen sailkatuek sariak jasoko dituztela azpimarratu dute.

Izen ematea egunean bertan egingo da, dohainik.

Urbat taldeko lau jokalarik zilarra lortu dute Logroñoko Waterpolo Txapelketan



E.B. Urbat waterpolo taldeko lau jokalarik, Malenek, Elenek, Naroak eta Laiak, zilarrezko domina lortu zuten asteburuan, XI. Ciudad de Logroño Waterpolo Txapelketan. Eibartarrek Hiru Urak Donostia taldearekin batera jokatu zuten emakumezkoen senior mailako lehian. Urbatek jokalarien lana eta egindako txapelketa nabarmendu ditu, eta Hiru Urak Donostia taldeari eskerrak eman dizkio eibartar jokalariai aintzat hartzeagatik.



30 urte lehoiaren itzalean kulturari ateak zabaltzen

Portaleak hogeita hamar urte beteko ditu laster eta, hori ospatzeko, programazio berezia prestatu du Udalak. Atzera begirako erakusketa handi batekin hasiko da egitaraua, datorren astean. Horrekin batera, irailaren 25ean abiatuko den hitzaldi-zikloa prestatu dute eta, gonbidatu ezberdinen eskutik, Portalea moduko espazioek gure komunitatearentzat duten garrantziaz hausnartuko da. Eta, programa berezi hori biribiltzeko, ate-irekien jardunaldiak eskainiko dituzte, herritarrek Portaleko eguneroko jarduna bertatik bertara ezagutu ahal izateko.

Testua **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**



Hogeita hamargarren urteurrenaren harira antolatu dituzten jardueren artean, datorren astean ateak zabalduko dituen erakusketa izango da garrantzitsuenak, zalantza barik. *Portalea 1996/2026* atzera begirako erakusketak Portalean beraien lanak erakutsi dituzten hirurogei artista baino gehiago elkartuko ditu. Datorren barixakuan, irailaren 18an inauguratuko da, eta urriaren 25era arte egongo da zabalik, Portaleko erakusketa aretoan, ohiko ordutegian: martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

Antolatzaileen berbetan, “gonbidapena egin zaie hogeita hamar urte hauetan Portalean erakusketak bakarka egin dituzten artistei. Hirurogei artistak baino gehiagok erantzun dute, eta beraien obretako bat erakutsiko dute. Horrela, Portaleak bere urteurrena ospatuko du, eta hilabete batez azken hogeita hamar urteetako euskal sorkuntza artistikoaren leihobilakatuko da”.

Parte hartuko duten artisten zerrenda luzea da: Almu Maeso, Ainhize Txopitea, Aitor Etxebarria, Aitor Sarasketa, Alberto Ibañez, Alberto Rementeria, Alfonso Gortazar, Angel Güenaga Hernandez, Anton Hurtado, Baroja Collet, Bingén de Pedro, Carmen Palomero,



Portaleko erakusketa aretoa inauguratu zuten artisen artean Fernando Beorlegi, Marino Plaza, Baroja Collet eta beste izen handi batzuk daude. Horietako batzuk hil diren arren, atzera begira egingo den erakusketan hartuko dute parte, beraien lanen bat erakutsita.

Daniel Txopitea, Dora Salazar, Edurne Martínez Arroyo, Esperanza Zabala, Esther Galarza, Fernando Beorlegui, Fernando de Vicente Garrido, Florencio Alonso, Gonzalo Etxeberria, Gorka Larrañaga, Ignacio Gimenez, Iker Valle, Ines Medina, Iñaki Larrañaga, Ismael Iglesias, Ion Etxeberria, Izaskun Alvarez, Javier Balda, Jon Amorrortu, Jon Ibala, Jose Angel Lasa, Jose Antonio Azpilikueta, Jose Ibarrola, Jose Kareaga, Jose Luis Irigoien, Jose Zugasti, Joserra Elorza, Josue Pena, Juan Antonio Palacios, Juan Ignacio Mendizabal, Juan Sagastizabal, Koldo Etxebarria, Leire Kareaga, Maria Romero, Mariano Arsuaga, Marina Etxeberria, Marino Plaza, Miguel Pedroza, Miriam Isasi Arce, Oaia Peruarena, Patxi Laskarai, Peio Alberdi, Pilar Soberon, Ricardo Azkargotza, Rosa Valbuesa, Susana Jodra Llorente, Txaro Arrazola, Txiki Agirre, Viviane Straub eta Zaloa Ipiña.

Eskopeta fabrika zaharra kultur-etxe bilakatuta

Gaur egun kultura-etxea den arren, Bista Eder kaleko 10. zenbakia gure herriaren iragan-industrialaren lekuko garrantzitsua ere bada. Bost solairu dituen eraikinak sasoi batean Eibarren oso arrunta izan zen industria-tipo-

Datorren astean, irailaren 18an zabalduko duten “Portalea 1996/2026” atzera begirako erakusketak 60 artista baino gehiagoren lanak bilduko ditu

logia arrazionalistari jarraitzen dio. Raimundo Alberdi y Abaunz arkitektoak proiektatu zuen, 1926an, eta 30eko hamarkadaren amaieran eraiki zen. Gerraostean, 1940. urtean kokatu zen bertan AYA enpresa, eta bertan egon zen, laurogeiko hamarraldira arte.

Fabrika itxi ondoren, 1988. urtean Eibarko Udalaren esku geratu zen eraikina, eta goitik behera eraberritu zuten, kultura-etxe bihurtzeko. Birgaitze-proiektua Jose Manuel Muñagorri, Javier Marquet eta Luis Maria Zulaica arkitektoek egin zuten. Birmoldatze-lanetan urteak eman eta gero, 1996ko irailaren 28an inauguratu zen Portalea Kultur Etxea.

Portalea izena, berriz, Eibarrera sartzeko ate batean du jatorria: ate hori gaur egungo kultura etxetik gertu egon omen zen, Aro Modernoaren hasieratik XX. mendera arte. Segu-



Portaleko erakusketa aretoa euskal arte plastikoen erreferente garrantzitsua da gaur egun, eta bertako zein kanpoko artistek asko estimatzen dute horrelako espazio batean beraien lanak erakusteko aukera izatea.

Kultur-etxea dagoen tokitik gertu egon zen sarbide zahar batengatik jarri zioten Portalea izena eraikinari

ru asko, merkantziak Elgetatik Gaztelarantz eramateko eta Gaztelatik sartzeko erabiliko zen ate hori. Dokumentu zaharretan agertzen denez, eibartarrek *Portal* edo *Portala* izenez ezagutzen zuten sarbide hori. Eraikina atetzar horren kokagune zaharretik gertu dagoenez, horregatik jarri zitzaion Portalea izena.

Bederatzi milioi bisita 30 urtetan

Inauguratu zenetik, Portalean hainbat udal zerbitzu egon dira, hala nola Euskaltegia, Juan San Martin Liburutegia, Dibujo Eskola, Zeramika Eskola, Juan Bautista Guisasola Musika

Eskola, Armagintzaren Museoa eta hainbat udal sail. Horrez gain, herriko dozenaka elkarte eta talderen ohiko egoitza ere bihurtu da.

Jende gehien biltzen duen guneetako bat Juan San Martin Liburutegia da, 3.778.858 bisita izan baititu zabaldu zenetik.

Erakusketa-aretoa, berriz, euskal arte plastikoen erreferenteetako bat da gaur egun: inauguratu zenetik gaur arte, 400 erakusketa inguru egin dira, eta horiek ikusten 135.000 bisitari inguru pasatu dira bertatik. Eskualdeko artista hasi berriek zein lehen mailako figurek erakutsi dituzte beraien lanak Portaleko erakusketa aretoan.

Gaur egun, ehun pertsona inguruk egiten dute lan eraikinean. Horien artean irakasleak, teknikariak eta administrariak, tailerretako monitoreak, mantentze-lanetako langileak, garbitzaileak eta ostalariak daude.

Jarraian dauzkazuen zenbakiek ondo baino hobeto islatzen dute ekipamenduak hartu duen dimentsioa: hogeita hamar urte hauetan, bederatzi milioi bisita inguru jaso ditu, bere zerbitzu eta espazio guztietan; 105.000 erabilera baino gehiago egin dira bilera-areto eta ikastaroetan; eta 1,1 milioi asistentzia baino gehiago Dibujo, Zeramika, Musika eta Kezka Dantza Eskoletara...

Zalantza barik, gure herriak izan duen bilakaeraren sinbolo ederra da Portalea: arma-fabrika izatetik kultura-etxe izatera igaro den eraikina, herriaren industria-iragana eta gaur egungo kultur bizitza lotzen dituen.

“Dantzatzeko jakitea ez da derrigorrezkoa gure kontzertuez gozatzeko”

BEÑAT LOPEZ • Goxua'N Salsa taldeko kidea



Goxua'N Salsa taldeak Agorra Festi hasiera emango dio barixaku gauean, Untzaga plazan. Iruñean sortutako taldeak 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetako salsa klasikoa du oinarri. Euskarazko eta gaztelaniazko kantuak uztartzen dituzte, eta hiru abeslari eta hamalau musikarik osatzen dute taldea. Beñat Lopezek taldearen jatorriaz, euskaraz kantatzeaz eta Eibarrera ekarriko duten zuzenekoaz hitz egin digu.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Salsa orkestraren formatu klasikoari eutsiz, Goxua'N Salsa taldeak musika latinoaren eta euskararen arteko zubia eraiki du azken urteotan. Iruñean sortu ziren 2020an, eta, COVID-19aren ondorioz estreinaldia atzeratu behar izan bazuten ere, 2021eko ekainean eman zuten lehen kontzertua. Ordutik, zuzenekoak eta grabazioak uztartzen ari dira, eta dagoeneko hiru lan diskografiko kaleratu dituzte. Barixaku honetan Eibarrera iritsiko dira, Agorra Fest jaialdiaren barruan, Potato taldearen aurretik Untzaga plaza dantzan jartzeko asmoz.

Zer da Goxua'N Salsa?

XX. mendearen amaierako eta, batez ere, 70eko hamarkadako salsa orkestren formatu klasikoa lantzen duen taldea gara. Euskarazko eta gaztelaniazko kantuak uztartzen ditugu. Euskal kanta klasiko batzuen salsa bertsioak ere egin ditugu, baina orain, batez ere, gure estilo propioarekin kantuak sortzeko bidean ari gara.

Nola eta zergatik sortu zenuten taldea?

Salsaren inguruan guretzat oso ezezaguna den zirkuitu bat dago, abeslari latinoena. Europara bira egi-tera datozenean, abeslaria bakarrik etortzen da, edo,



gehienez, zuzendari musikarekin. Orduan, tokian tokiko orkestrak antolatzen dira haiei laguntzeko.

Horietako batean sartu zen gure zuzendari musikala, Julen Leuza, eta generoarekin maitemindu zen. Iruñean salsa egingo zuen orkestra talde egonkor bat sortzea proposatu zuen, han ezagututako hainbat lagunekin. Esparru desberdinetatik tiraka osatu zen taldea: zirkuitu horretatik, Kontserbatoriotik eta inguruko ezagunengandik.

Oso urte txarrean sortu ginen, gainera. Lehen kontzertua 2020ko martxorako hitzartuta genuen, eta COVID-19aren ondorioz urtebete itxaron behar izan



Goxua'N Salsa taldea zuzeneko batean. BEÑAT LOPEZ

genuen estreinatzeko. Azkenean, 2021eko ekainean eman genuen lehen kontzertua, eta ordutik gelditu gabe aritu gara.

Taldea egonkorra da?

Bai. Egia da gutako asko beste talde batzuetan ere aritzen garela, txarangetan, esaterako, eta urtean zehar ordezkapenak egoten direla. Baina, berez, taldekide finkoak gara.

Zenbat musikarik osatzen duzue taldea?

Hamalauk. Eta oso harro gaude horretaz. Azkenaldian, eszenatokietan gero eta musikari gutxiago ikusten dira: ordenagailua, autotunea... eta aurrera. Guk entzuten den guztia eszenatokian ikusi ahal izatea defendatzen dugu.

Hiru abeslari, baxu-jotzaile bat, piano-jotzaile bat, hiru perkusionista, hiru tronboi eta bi edo hiru tronpeta ditugu, emanaldiaren arabera.

Salsa musika oso lotuta dago Latinoamerikako kulturarekin eta tradizioarekin. Zeintzuk dira zuen erreferente nagusiak?

Aipatutako garaiko musikak dira gure inspirazio nagusiak: El Gran Combo de Puerto Rico, Willie Colón,

“Guk defendatzen duguna da entzuten den guztia ikusi daitekeena dela”

Rubén Blades... Formazio horrekin sortutako kantuak dira gure erreferentzia nagusiak.

Formazio horretara bideratutako bertsioak eta musika egiten ditugu. Oinarri orokor bat dago: pianoa, baxua eta hiru perkusionista. Horren gainean sartzen dira haize instrumentuen moldaketak eta ahotsak: ahots nagusi bat eta beste bi ahots, estribilloetan koroak egiten dituztenak. Ahotsak ere txandakatzen joaten dira.

Egitura nahiko finkatuta dago, beraz, eta guk molde hori hartu eta gurera egokitzen dugu.

Eta zein da prozesu horren erronkarik handiena?

Guretzat erronka handiena antolakuntza da: hamalau lagun koordinatzea eta entseguak egiteko tarteak aurkitzea. Konposizioaren aldetik, ordea, ez da hainbesteko erronka. Normalean taldeak txikiagoak dira eta

entseguetara ideiak nahiko garatuta eramaten dira. **Salsa eta euskara uztartzea da zuen proposamenaren ezaugarrietako bat. Euskaraz kantatzea hautu kontzientea izan zen?**

Ez dugu gurpila asmatu. Egun batean baten batek erabaki zuen rocka euskaraz egin zitekeela, edo popa. Salsarekin ere, gu baino lehen, baziren euskaraz egiten zuten taldeak, hala nola Tik Tara edo La Jodedera.

Guk taldea sortu genuenean, talde latinoen bertsioak egiten hasi ginen, Grupo Niche eta antzekoak. Eta, une batean, euskal taldeen bertsioak egitea proposatu genuenean, oso modu naturalean ateraz zen talde barruan. Gure hizkuntza denez, logikoa da hortik ere abiatzea.

Inkontzienteki egin genuen hasieran, baina argi dugu taldea mestizoa eta mistoa dela. Kolonbiarrak ere baditugu, eta ezin dugu dena euskaraz egin; haien zat erronka handia baita ulertzen ez duten hizkuntza batean kantatzea. Fonetikoki ere ondo kantatu behar dute, eta ez da batere erraza.

Letren ahoskera prestatzen diegu, gutxi gorabehera nola esan behar duten, eta ikasi egiten dute. Kristoren meritua dute, egia esan. Eta, noski, letra ere itzultzen diegu, zer esaten ari diren jakin dezaten.

Zuzenekoetan musikak ez ezik, dantzak ere badu pisu handia. Zer gertatzen da taldearen eta publikoaren artean?

Eszenatokitik ikusten duguna oso nahasketa polita da. Mundu latinoak gugana hurbiltzen direla ikusten dugu, eta normalean sartzen ez diren lekuetan sartzen direla. Txosnaguneetan ere ikusi ditugu lehenengo ilaretan, eta hori ez da batere ohikoa.

Baina euskaldunak ere ikusten ditugu: aldakak ez dira gure puntu indartsuena, baina dantzan ikusten ditugu, dantzan saiatzen edo, besterik gabe, musikaz gozatzen.

Azkenaldian, gainera, beste talde bat ere hurbiltzen zaigu: dantza akademietako jendea. Normalean lehenengo ilaretara etortzen dira, eta kontzertu osoa dantzan ematen dute. Sekulako bizia ematen diote giroari. Eszenatokitik hoguei bat bikote uneoro dantzan ikustea asko nabaritzen da.

Agorra Festen izango duzun kontzertua berezia izango da: Eibarren lehen aldiz ariko zarete, eta jaialdiko lehen kontzertua izango da. Pozik zaudete?

Bai, noski! Lehen aldiz izango gara Eibarren, eta



Beñat Lopez, erdialdean, taldearen zuzenekoan. BEÑAT LOPEZ

“Agorra Fest bezalako jaialdi txikiek hobeto ezagutzen dute inguruko eszena eta ez daude hain deskonektatuta”

Untzaga plaza plaza handia da, hanka altxatzen dutenentzat bereziki. Suposatzen dut hanka altxatzen duten horiek aldakak ere dantzatzen jakingo dutela! **Zer dira horrelako jaialdiak zuen moduko taldeentzat?** Bertako taldeak bultzatzen dituzten jaialdiak beti dira ongi etorriak. Azken finean, horrelako jaialdi txikiek hobeto ezagutzen dute inguruko eszena eta ez daude hain deskonektatuta.

Azkena: eibartar bati hiru arrazoi eman beharko bazenizkioke barixakuan, 22:00etan, Untzagara Goxua'N Salsa entzutera joateko, zeintzuk lirake? Musika gozagarria egiten dugula, oso giro polita sortzen dela eta dantzatzen jakitea ez dela derrigorrezkoa gure kontzertuez gozatzeko. Eta, azken batean, hori: giroa egongo dela eta gozagarria izango dela.



Errotuloak euskaratzeko dirulaguntza eska daiteke

S.H. Lokal komertzial, industrial eta elkarteetako egoitzetako errotuloak euskaraz jartzeko dirulaguntza eskatzeko epea zabalik egongo da, azaroaren 16 arte. Dirulaguntzak herriko lokal komertzialetako, industrialetako edo elkarteen egoitzetako irudi korporatiboa osatzen duten errotulu, inskripzio eta elementuak euskaraz edo ele bietan (euskara-gaztelania) jartzeko izango dira, eta hiru kontzeptu ezberdinetarako eska daitezke: errotulu nagusia euskaraz edo ele bietan jartzeko; lokalaren kanpoko eta barruko inskripzio finkoak euskaraz edo ele bietan jartzeko; eta irudi korporatiboko elementuak euskaraz edo ele bietan jartzeko. Informazio gehiago Udalaren webgunean.

‘Finalmente soy yo’ liburua aurkeztuko du Diez Rodriguezek

S.H. Eguaztenean (irailak 16) aurkeztuko du Gemma Diez Rodriguezek *Finalmente soy yo. Mi noche oscura del alma* izenburuko liburua, Portalean. Ikastaro gelan izango da aurkezpena, 18:00etan, eta egileak berak egingo du. Lanbidez zerga eta kontabilitate-aholkularia da bera. Horrez gain, coach-prestakuntza dauka, eta hiru urte eman ditu Donostiako CPI Psikologia Eskolan. Egilearen berbetan, “56 urte nituenean, krisi existentsial batek erabateko eraldaketa-prozesu batera eramán ninduen”. Bizipen horren emaitza da liburua.



Euskarazko ekoizpen zientifikoari buruzko ikerketa-beka abiarazi dute

S.H. Euskaltzaindiak eta UEUk *Euskarazko ekoizpen zientifikoa: egoera, azterketa konparatiboa eta etorkizunerako proposamenak prestigioa handitzeko* ikerketa-beka sortu dute. Azaldu dutenez, euskarazko ekoizpen zientifikoaren beherakadaren aurrean, euskarazko aldizkari zientifikoak eta ikertzaileek euskaraz ekoizteko dituzten baldintzak aztertzea eta ebaluatzea da bekaren helburua.

Bekaren aztergaia euskarazko ekoizpen zientifikoa da, eta laginak hauek izango dira: euskarazko aldizkari zientifikoak, ikerketarako kontratu-programak, dirulaguntza-deialdiak, eta ekoizpen zientifikoaren datu-baseak/katalogoak, kalitate-adierazleak eta ebaluazio-sistemak: “Hau da, euskarazko aldizkari zientifikoaren egoera eta euskaraz argitaratzen duten ikertzaileen jarduna ikertuko dira, ikuspegi kuantitatibotik zein kualitatibotik. Horretarako, besteak beste, ekoizpenaren bolumena, dibertsitatea eta ikusgarritasuna inpaktu akademikoa, finantzaketa-iturriak eta ebaluazio-irizpideak aztertuko dira, baita ikertzaileek aurkitzen dituzten oztopoak eta aukerak ere; bereziki, zer neurritan aitortzen eta sustatzen den euskaraz egindako ekoizpen zientifikoa”.

Beka norbanakoez nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute, eta eskuratzen duenarentzat 5.000 euroko diru-poltsa bat aurreikusten da. Eskuerak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea irailaren 14tik urriaren 16ra egongo da zabalik, biak barne, eta UEUren webgunean dagoen inprimakia erabiliz aurkeztu beharko da. Informazio gehiago www.ueu.eus webgunean.



‘Eraldatzen duten haziak’ gaia irudikatzen kartel lehiaketa

S.H. Eibarko Kontsumo Arduratsu eta Ekologikoa-ren IV. Azokarekin lotuta, Egoaizia GGKE-ak kartel lehiaketa antolatu du. Aurten, *Eraldatzen duten haziak*: *bizitzari eusten dioten emakumeak eta eskubi-deak* lelopean egingo da, eta gai hori sormenaren eta hizkuntza grafikoaren bidez irudikatzen gai diren bi kartel bilatzen dituztela adierazi dute antolatzaileek, “agroekologia, elikadura-subiranotasuna, kontsumo arduratsua, ekonomia solidario eta feministak edota pertsonen, komunitateen eta naturaren zaintza bezalako gaiak uztartuz”. Bi sari emango dituzte: 150 eurotan baloratutako saria, helduen mailan (16 urtetik gora); eta 80 eurotan baloratutakoa, gazteen kategorian (11-15 urte). Sariak *Eibar Eraldatuz* mapari atxikitako tokiko saltokietan erabiltzeko bonuak izango dira, “udalerriko hurbileko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatzeko”.

Lanak urriaren 5era arte aurkeztu daitezke, helbide honetara bidalita: lehiaketaegoaizia@gmail.com. Mezuaren gaian honakoa adierazi beharko da: Kartel Lehiaketa 2026 + parte-hartzailearen izena + kategoria. Informazio guztia www.egoaizia.org helbidean dago.

Izengabeak lehiaketaren azken txanpan

S.H. Debararreneko musika taldeen lehiaketaren eskutik, zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izango dugu irailaren 18an eta 19an (barixakuan eta zapatuan). Izan ere, *Izen-gabeak* lehiaketara aurkeztu diren taldeetatik batzuk aukeratu dituzte, 19:30etik aurrera Untzagan kontzertua emateko.



‘Euskararen biharraz’ herri-batzarretara joateko deia

S.H. 2016-2025 urteetako Euskararen Plan Estrategikoak egin du bere bidea eta, ebaluazio prozesua eginda, datozen hamar urteetarako Plan Estrategiko berria egiteko ordua da. 2026-2035 aldirako Plan Estrategikoa prestatzeko, irailaren 22an eta urriaren 6an eta 20an egingo diren hiru saioetara deitu dituzte herritarrak Eibarren Akebai plataformatik.

Azaldu dutenez, “*bizarko* euskera, euskararen aldeko *biharra*, euskararen *beharra* biharko Eibarren... hiru adiera horiek batuta egingo dira Akebai-k deitu dituen *Euskararen biharra* izenburuko gogoeta saioak. Arratsaldeko 18:00etan izango dira hirurak, Markeskuan, eta ordu eta erdi iraungo du bakoitzak”.

Saio bakoitzean landuko diren gaiak zehaztu dituzte antolatzaileek: “Lehen saioan, aurreko planaren balorazioa oinarri hartuta elkar-jartze bat egingo dugu. Bigarren saioan, AROaren aurkezpena egingo da, hurrengo planak izango duen egitura ezagutu, eta lehentasunen inguruan hausnartzeko. Eta, hirugarren saioan, diagnostikoan jaso diren indargune, zer-hobetu eta ekarpenak kontuan hartuta, lan-ildoan eta antolaketaren inguruan arituko gara”. Ahize-AEK-k dinamizatuko ditu saio parte-hartzaileak eta, antolaketaren egokia errazte aldera, labur.eus/eibareuskaraz estekan izena eman daiteke.

2025eko udazkenean egin zen azken hamar urteetan indarrean egon den Euskararen Plan Estrategikoaren balorazio eta diagnostiko prozesua, eta emaitzen-txostena ere ikusgai dago. Plan estrategiko hori ESEP (Euskara sustatzeko ekintza plana) markoan oinarrituta sortu zen, eta azken hamarkadan Eibarren euskararen sustapen eta normalizazioarako egin diren ekintza, ekimen eta proiektuen oinarrietako bat izan da.

ERRAZA

		1			4				
2						5		4	
7					3				
5		2		4		6			
	1		6		9		2		
		4		7		8		1	
			5					8	
1		3						6	
			4			7			

SUDOKUA

3	5	7	9	1	4	8	2	6
9	4	2	8	6	7	3	5	1
8	1	6	2	3	5	9	7	4
1	8	8	5	7	2	4	6	9
5	2	4	2	6	8	9	7	3
7	6	9	1	4	1	3	2	5
6	9	1	3	2	2	8	5	7
4	5	8	6	7	9	1	6	3
2	3	7	2	4	5	6	1	8

1	4	2	5	6	9	8	7	3
6	8	7	2	3	1	4	5	9
2	6	5	7	3	8	1	9	4
7	3	4	2	6	8	9	5	1
5	9	8	6	3	7	2	4	1
8	1	7	5	4	2	9	6	3
3	2	9	1	8	5	7	3	6
4	5	3	7	1	9	6	2	8
9	6	1	4	5	7	3	8	2

ZAILA

	4	7						
		5		3	9			4
					1		3	
9						3	2	
1		3				8		5
	6	2						7
	9		8					
4			3	7		6		
						1	4	

7 DESBERDINTASUNAK



Irailak 11/17

BARIXAKUA 11

AGORRA FEST

18:30 Broken Brothers Brass Band. **20:30** Psychoclown. **22:00** Goxua'n Salsa. **24:00** Potato. Kaleko musika jaialdia, Ustekabe txarangaren 25. urteurrena ospatzeko.



ZAPATUA 12

AGORRA FEST

10:30 Erraldoiak eta gaiteroak. **12:30** Ustekabe txaranga. **19:00** Burrumba elektrotxaranga. **22:00** EH Sukarra. **24:00** Laket erromeria. Kaleko musika jaialdia, Ustekabe txarangaren 25. urteurrena ospatzeko.



DOMEKA 13

KOFRADIA ETA BASERRITAR JUBILATUEN EGUNA

10:30. Simon Aldazabal XXXI. Antxixiketaldia. Klub Deportibotik Arratera. **11:00.** Meza Nagusia, bertolariekin (German Meabebasterretxea eta Nerea Elustondo), eta prozesioa, Usartza Txistulari Taldearekin. Arrateko santutegia. **12:00** Paella lehiaketa. **12:00** Kaelo memoria. Pilota partiduak, kadete eta jubenil mailetan. Arrateko frontoian. **14:00** Paella lehiaketaren sari-banaketa. **17:30** Idi gazteen erakustaldia. Sarrera libre. Arrateko probalekua.



AGORRA FEST

12:30 Eusko Lehen. Kaleko musika jaialdia, Ustekabe txarangaren 25. urteurrena ospatzeko.



EGUAZTENA 16

LIBURU AURKEZPENEA

18:00 Gemma Diez Rodriguezen "Finalmente soy yo. Mi noche oscura del alma" liburuaren aurkezpena. Portalea (Ikastaro gela).



AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondateei buruzko informazio-zerbitzua, Ikastaren eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).



ZINEA COLISEO



“El ser querido”
DRAMA
2026/Espainia/135’
Zuzendaria: Rodrigo Sorogoyen
Aktoreak: Javier Bardem, Victoria Luengo, Raúl Arévalo
Aitatasuna. Familia. Alkoholismoa

1 ARETOA

- 12an: 16:30
- 13an: 17:00

ANTZOKIA

- 12an: 19:30, 22:30
- 13an: 20:00
- 14an: 19:30



“Cinco segundos”
DRAMA
2025/Italia/105’
Zuzendaria: Paolo Virzi
Aktoreak: Valerio Mastandrea, Galatea Bellugi, Valeria Bruni
Landa-bizitza

1 ARETOA

- 12an: 19:45, 22:30
- 13an: 20:00
- 14an: 19:30



“Cronos”
THRILLER. DRAMA
2026/Espainia/118’
Zuzendaria: Fernando González Molina
Aktoreak: Enric Auquer, Diana Gómez, Monica Lopez
Benetako gertaeretan oinarritua. Terrorismoa. Polizia

2 ARETOA

- 12an: 17:00, 19:45, 22:30
- 13an: 17:00, 20:00
- 14an: 19:30



“Kangaroo: Una aventura en Australia”
KOMEDIA
2026/Frantzia/99’
Zuzendaria: Kate Woods
Aktoreak: Lily Whiteley, Ryan Corr, Rachel House
Benetako gertaeretan oinarritua. Animaliak. Adiskidetasuna

ANTZOKIA

- 12an: 17:00
- 13an: 17:00



Luis Jesus Ramos Aizpurua

9. URTEURRENA
2017/09/14

“Beti zurekin,
beti gurekin.
MAITE ZAITUGU”

- ETXEKUAK -





Jose Luis Lopez Barrena “Txeluis”

2026/08/26

“Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa”

- ZURE KUADRILLA -





www.etakitto.eus
zorion-agurrak



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu aldizkarian eta gure webgunean. Informazioa guri helarazteko bi aukera daude: **FORMULARIO** bat betetzea **ETAKITTO.EUS** webgunean (QR-aren bidez sartu zaitezke), edo presentzialki gure bulegoan. Argazki arrunta: 4 euro. Bikoitza; 8 euro (%20ko deskontua elkarteko bazkideentzat)



Zorionak **URKO!** Irailaren 9xan 7 urte bete dozuz eta! Patxo haundi bat famelixaren partez. Segi holan, txapeldun!



Zorionak **HARITZ!** Abuztuaren 16xan izan zan zure lehen urtebetetzia. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak **MATEO!** Irailaren 7xan 6 urte bete dittuzu. Pilla bat maite zaittugu. Patxo potoia etxekuen eta, batez be, Vegaren partez.



Zorionak **AMELIA!** astelehenian (hillak 14) urtiak beteko dozuz eta. Ondo ondo ospatu! Laztan haundi bat famelix eta lagun guztixen partez.



Zorionak **OIHAN!** hillaren 15ian hamar urte betetzen dozuz eta. Fame-lixa guztixaren partez, oso ondo pasa eta musu haundi bat.



Zorionak **NAIA!** Gaur, irailak 11, gure etxeko haundituak 8 urte betetzen dittu. Super zorionak famelixan partez eta disfrutau zure eguna.



Zorionak **JON** (Irailaren 8xan 6 urte) eta **JULE** (irailaren 13an 3 urte) famelix guztixan partez. Musu asko. Pilla bat maite zaittuztegu.

FUNEUSKADI
Zorion Agurak

FUNERARIA MUGICA
Funerariak



24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Osaola, 27

Eibarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Elgoibar:
Xalalon, s/n. SIGMA Industriaidea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermuako bulegoa:
Marques de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



ESKERTZAK ETA
URTEURRENAK

688 62 76 89

Urriku, 11 - solairuareta
publizitatea@etakitto.eus

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
3.3. Konpartitzeko
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

- 1. ETXEBIZITZA**
1.2. Errentan
 - BENIDORM. Neguko denboraldirako etxebizitza alokatzen da. Gutxienez 15 eguneko egonaldiak. Hondartzatik eta erdigunetik gertu. Igerilekua. Garajea barne. Aukera ezberdinak aztertzen dira. Informazio gehiago: 667244733.
- 3. LOKALAK**
3.2. Errentan
 - Garaje partzela alokagai Urkizu Pasealekua, 9 kalean. Deitu 609453946
- 4. LANA**
4.1. Lan bila
 - Emakumea eskaintzen nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 642578943.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna moduan. Esperientziarekin. 612484347.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka, etxe edota ospitaletan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 641955434.
 - Neska euskalduna eskaintzen da goizetan umeak zaintzeko eta eskolara eramateko. 618984291.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, interna bezala edota orduka. Edozein egun eta ordutan. 663365078.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, gabaz edota asteburuetan. Ziurtagiri sozio-

- sanitarioarekin. 631907582.
- Emakumea eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Esperientzia eta disponibilitatea. 632288100.
- Emakumea eskaintzen da goizetan umeak eskolara eramateko. Urte askotako esperientziarekin. 645720594.
- Emakumea eskaintzen nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 633101852,
- 18 urteko neska gaztea eskaintzen da, ikasturtean zehar goizetan umea eskolara eramane arte zaintzeko. anearriola1402@gmail.com
- Emakumea eskaintzen da goizetan nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. 688740201.
- Emakumea eskaintzen da dendari bezala edota estetika zentroetan laguntzaile bezala lan egiteko. 614043426.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Egun osoko disponibilitatea. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 631593925.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 632624579.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 642829497.
- Gizona eskaintzen da zerbitzari lanak egiteko. Zerbitzari titulua du. 642138108.
- Gizona eskaintzen da zerbitzari lanak egiteko. 642828910.
- Mutila eskaintzen da soldatzailer lanak egiteko. Tituluduna. 614798337.

- 4.2. Langile bila**
 - Gasolindegri batean oporraldietarako lanaldi osoko saltzailea behar da. Interesatuak bidali curriculumacitain@gmail.com helbidera.
 - Langilea behar da gasolindegri batean. 8 orduko kontratua, igandeetan bakarrik lan egiteko. Interesatuak bidali curriculumacitain@gmail.com helbidera.
 - Pertsona bat behar da irailetik aurrera DBH 3ko eskola partikularrak etxean emateko. 675708939.
 - Banatzaileak behar dira ostiraletan...eta kitto! aldzkaria banatzeko. Urte osoko kontratua. Tel. 943200918 / banaketa@etakitto.eus
- 5. IRAKASKUNTZA**
5.2. Eskaintzak
 - Neska euskaldunak ingelezko klase partikularrak ematen ditu. C1 tituluarekin. 615701749.
 - Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
 - DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
 - Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
 - DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira.

GREMIOEN GIDA

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Ifnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA

THELECE
TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
610 532 922 www.thelecer.com



24 orduko
urgentziak

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com eta faxa: 943 203 903



AROTZAK



**aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA**
baita toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 38 - 1. eta behe
Ifnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.



Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun

Azaitan Industrialdea, 3 H Pabilioia
Ifnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

IÑAKI
pinturak eta lurrak
Tel. 647 902 208
Rialdeburrieta, 21 - behe



GARBIKETAK



Garbihome

Etxe, atari, bulego, merkataritza lokal
eta komunitateetarako garbiketak
zerbitzuak eskaintzen ditugu

642 456 472
info@garbihome.com
garbihome.com

ITURGIÑAK

Arriaga
iturgintza




Aragueta, 2 Bto adma.riaga@gmail.com
943 20 20 34 681 24 28 35

Udal Euskaltegiak
Publikoak, irekiak, guztiontzat

EUSKARA

PAUSO BATERA



**EIBARKO
UDAL
EUSKALTEGIA**

Portalea eraikina
Bista Eder kalea 10,
2. solairua
Telf.: 943 700912
WhatsApp:
688 698566
E-posta:
euskaltegia@eibar.eus

**Informazio
gehiago:**

